# Xedapen Orokorrak

## LEHENDAKARITZA

### 1294

6/1994 LEGEA, martxoaren 16koa, turismoa antolatzezkoa.

Eusko Legebiltzarrak honako Legea onartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei:

## MARTXOAREN 16KO 6/1994 LEGEA, TURISMOAREN ANTOLAKETARI BURUZKOA

### Zioen adierazpena

I.- Euskal Autonomi Elkarteak, Autonomi Estatutuaren 10.36 atalaren arabera, bakarreko aginpidea du turismoaren arloan. Hala ere, Estatutua onartu zenetik, turismoaren arloak ez du bereziki arau berariazkorik izan.

Euskal Autonomi Elkartean, gaur egun dagoen araubide urri eta zatizkoa kenduta, egon den arau-faltaren ondorioz, turismoaren araubide-zati handi bat Estatukoaren kontura dago, Konstituzioaren 149.3 atalean ezartzen den ordezkotza-irizpideak hala agintzen baitu.

Lege hau, hortaz, bakarreko aginpide hori garatzeko aldarrikatzen da, eta horren beharrak ondoko hauek ditu oinarri:

1.- Turismoari trataera bateratua eta sistematikoa emateko beharra.

2.- Konstituzioaren irizpidez, zigor arloko administrazio-zuzenbidearen lege bidez arautu beharra.

3.- Turismo-enpresa eta egile-eragileen ihardunа aurrera ahalik eta ondoen eramateko behar adina esparrua eskaintzea, euren kalitate eta lehiakortasunaren alde jokatuz.

4.- Turismoaren bezero eta erabiltzaileei babes egokia eskaintzearen egokitasuna, beti ere sektoreari buruzko erabaki hauetatik gure Autonomi Elkarteko bezeroen eskubideen babes-esparrua indartuz.

II.- Legearen helburua turismoaren antolaketa bateratua eta sistematikoa eskaintzea bada, sortzen den lehenengo arazoa kontzeptu horren zehazgabetasuna eta atzemangaitza da, hain zuzen ere, kontzeptu horrek erro eta konnotazio soziologiko nabarmenak baititu eta ageriko garrantzi ekonomikoa.

Turismo terminoa 1905eko abuztuaren 6ko Errege Dekretuko hitzaurrean lehenengo aldiz azaldu zenez gero, hitz horren erabilera jende ar-

# Disposiciones Generales

## PRESIDENCIA

### 1294

LEY 6/1994, de 16 de marzo, de ordenación del Turismo.

Se hace saber a todos los ciudadanos de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente:

## LEY 6/1994, DE 16 DE MARZO, DE ORDENACIÓN DEL TURISMO

### Exposición de Motivos

I.- La Comunidad Autónoma del País Vasco tiene, a tenor del artículo 10.36 del Estatuto de Autonomía, la competencia exclusiva en materia de turismo. No obstante, desde la aprobación del Estatuto la materia turística no ha sido objeto de regulación especialmente intensa.

Esta ausencia de normación por parte de la Comunidad Autónoma, salvo la escasa y fragmentaria existente, ha provocado que la regulación del turismo haya quedado en buena parte a cargo de la normativa estatal, en razón de la supletoriedad establecida en el artículo 149.3 de la Constitución.

Así, esta ley se promulga para desarrollar una competencia exclusiva, y su necesidad se justifica en los fundamentos siguientes:

1.- En la necesidad de dar un tratamiento unitario y sistemático del turismo.

2.- En razón del principio constitucional de reserva de ley en el derecho administrativo sancionador.

3.- En ofrecer un marco suficiente para el mejor desarrollo de actividad de las empresas y sujetos turísticos, favoreciendo la calidad y competitividad de los mismos.

4.- En la conveniencia de ofrecer una adecuada protección de los consumidores y usuarios turísticos reforzando desde esta disposición sectorial el marco de defensa de los derechos de éstos en nuestra Comunidad Autónoma.

II.- Si el objetivo que persigue la ley es ofrecer una ordenación unitaria y sistemática del turismo, el primer problema que se plantea se deriva del carácter impreciso y evanescente de este concepto, de raíces y connotaciones típicamente sociológicas y de acusada importancia económica.

Desde que por primera vez apareciera el término en el preámbulo del Real Decreto de 6 de agosto de 1905, se fue generalizando, con valor sobreen-

tean zabaldu zen nabarmenkiro, ulertutzat ematen zen esanahia zuelarik baina lege arloko definiziorik gabe. Hori dela eta, zail da hitz horri lotura-zeregina esleitzen, gero gainean legea bera haren osatzeko.

Bestalde, ihardun jakin bat "turismokoa" dela esaten denean, administrazioari legezko zaio hori antolatu, sustatu, bultzatu, kudeatu, ikuskatu eta zigortzeko eskubidea.

Lege honen asmoa, beraz, ez da turismoa era abstraktuan antolatzea, turismo-sektorea bera antolatzea baizik. Horretarako, Euskadiko turismo-sektorea osatzen duten ihardun eta baliabide guztien artean lotura-bidea ezarri nahi da, nolabait bitarikoa dei dezakegun sistema erabiliz. Sistema horretan, batetik, banaka aipatutako turismo egile-eragileen arabera gauzatzen da iharduna, eta, bestetik, turismo-baliabideak turismoko joan-etorriak sortzeko gaitasunaren arabera zehazten dira.

Dena dela, legearen edukia adierazten hasi aurretik, esan behar da legeak kodetzeko borondate nahikoa duela, denbora luzez eta kasu guztietarako balioko duten aginduak biltzen dituelarik.

III.- Legearen I. idazpuruak, ezarpen-eremuaren (2. atala) definiziotik hasita, honako arlo hauek hartzen ditu bere baitan: lortu nahi diren helburuak zein-nolakoak diren (3. atala), administrazio-iharduketarako hatsapenak eta irizpideak (4. atala) eta, azkenik, Euskal Autonomi Elkarteko turismo-administrazioari izendatzen zaizkion aginpideak (5. atala).

IV.- Legearen II. idazpuruak turismoko enpresei buruz dihardu. Turismo-enpresa eta -tegia zer diren adierazten da 6. atalean. Orain aurkezten den arauak enpresa eta tegien iharduketako lege-esparrua zehaztu nahi du; horrela, baltzu-egoitza edonon dutela ere, turismo-ihardunean aritu beharko dute, eta, beraz, legeak horietaz ezarritako guztia ezarriko zaie. Gai horrek garrantzi berezia du turismo-disziplinaren arloan, eta, horregatik, ikuskatze-neurriak zein iharduni dagozkion eta arau-hausteen eta zigorren jaurbidea zehazten du oro har 56. atalak.

Turismo-ihardunak legezko izaera duenez, 7. atalak aukera ematen du turismoarekin zuzeneko zerikusia duten zerbitzuak ematen dituen edozein enpresa araudi bidez turismo-enpresatzat jotzeko, eta horregatik esaten da legeak ez diela "numerus clausus"ik jartzen turismo-enpresei. Aipatutako aukera 37. atalean garatzen da.

Izaera orokorrez ezartzen dira baimen-ihardunbidea, turismo-enpresek dituzten betebeharrak eta

tendido y sin que existiera una definición jurídica del mismo; de ahí la dificultad para asignarle el papel de nexo de unión sobre el que se construya el armazón de la ley.

Por otra parte, hay que tener en cuenta que es precisamente la calificación de una actividad como "turística" la que legitima la presencia de la Administración para ordenar, promover, fomentar, gestionar, inspeccionar y sancionar.

Así pues, la ley no pretende una ordenación del turismo en abstracto, sino del sector turístico en concreto, estableciendo un hilo conductor entre el conjunto de actividades y recursos que conforman el sector turístico del País Vasco utilizando un sistema que bien pudiera denominarse mixto, en el que la actividad turística se concreta en razón de los sujetos de la misma enumerados de forma precisa y los recursos turísticos se determinan por su aptitud para generar corrientes turísticas.

Ahora bien, antes de entrar en la exposición de su contenido, conviene señalar que la ley tiene una cierta voluntad codificadora, conteniendo preceptos que tienen una contrastada vocación de permanencia y generalidad.

III.- En el título I se contienen, a partir de la definición de su ámbito de aplicación (artículo 2), la descripción de los fines que se persiguen (artículo 3) y los principios y criterios a los que se adecuará la actuación administrativa (artículo 4), destacándose en el artículo 5 la atribución de competencias en favor de la Administración turística de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

IV.- El título II se refiere a las empresas turísticas. La ley, en su artículo 6, define los conceptos de empresa y de establecimientos turísticos. La pretensión de la norma que se presenta es la de configurar el marco jurídico de actuación tanto de las empresas como de los establecimientos, de manera que, con independencia del lugar donde radique su domicilio social, sean sujetos de actividad turística, y como tales sometidos en cuanto sea de aplicación a sus disposiciones. La cuestión tiene especial relevancia en materia de disciplina turística, y por ello el artículo 56 reitera de forma general cuáles son las actividades a las que resultan de aplicación las medidas inspectoras y el régimen de infracciones y sanciones.

Tratándose la actividad turística de una actividad de configuración legal, el artículo 7 abre la posibilidad, desarrollada en el artículo 37, de que reglamentariamente pueda calificarse como empresas turísticas a "cualesquiera otras" que presten servicios directamente relacionados con el turismo, con lo que la ley no establece un "numerus clausus" de empresas turísticas.

Con carácter general se establece el procedimiento de autorización, las obligaciones de las

turismo-enpresen errolda. Lege honetan ohartemandako administrazio-ihardunbideei eta bestelako arauetatikakoei buruzkoan, horiek eragina interesdun bat-berarengan dutenean, erabaki gehigarrietako bosgarrenean aipatzen denez, Jaurlaritzak ahaleginak egingo ditu horien biderapenak koordinazio- eta soiltasun-irizpideei jarraiki egin daitezen; biderapen hori, garbi dagoenez, ez dago oraingo hau bezalako alor-araupeketaren esku hutsetan uzterik, baizik eta horretarako jarri daitezen administrazioa eraberritzeko baliabideei dagokie.

Ondoren, turismo-ostatuko enpresen zehaztapenari eta sistematizazioari ekiten zaio, hotel-izaerako eta hotel-izaera gabeko ostatuen ohizko sailkapenari jarraikiz.

Hotelez kanpoko ostalaritzari dagokionez, dauden mota guztien jarraibide nagusiak ezartzen dira, nahiz eta mota horietako batzuek, turismo-apartamentuek esate baterako, Autonomi Elkartean eragin txikia izan.

Oporretarako turismo-etxebizitzen eta norbanakoen etxeetako ostatuen araubidea II. atalburuan zehazten da.

Baliteke horiek sistema barruan sailkatzea eztabaidagarri gertatzea, izan ere, ez baitira turismo-enpresa bete-betean; hala ere, turismo-ostatuak direnez, gainerako motekin batera jartzea komeni da, berariazko araudi bidez arautzekoak izango direla.

Norbanakoen etxeetako ostatuak arautzean, bidezkoa da zenbait xehetasun ematea. Lehenengo eta behin, esan behar da 28. atalaren arabera, Hiri Alogerei buruzko Legeak aipatzen duenaren ildotik, ez dutela apopilorik etxean iraunkorki hartzerik. Bigarrenez, adierazi behar da azken finean norbanakoen etxeetan ostatu-ihardunik badela, sarritan hotelen egitura osagarri bihurtzen denik. Horregatik, turismo-erabiltzaileari izaera orokorrez aitortzen zaizkion eskubideen babes-arauak ezartzea beharrezkoa da.

Baliteke, baita ere, ostatua eskaintzen duten norbanakoen etxebizitzak ugaltzeak legearen helburuei aurka egitea, izan ere, horiek ostatu iraunkor eta kalitatezkoa ematen dutenekin, batez ere hotelekin, bidezkoa ez den lehian aritzea gerta baililteke. Legeak dioenez, hotel-izaerako turismo-ostatuen kopurua erabat urria den herri edo egoeretan eta oporrak edo turismoa dela bide norbanakoen etxebizitzetako logelak prezioaren truke ostatu gisa eskaintzeko orduan, turismo-administrazioari jakinarazi beharko zaio. Administrazioak gutxieneko kalitatea eta erabiltzailearekiko babesa bermatu beharko du. Ekimen horren bidez, herri eta eskualde jakinetako turismo-eskaintza urria orekatu egiten da eta, bide batez,

empresas turísticas y el Registro de empresas turísticas. En cuanto a los procedimientos administrativos previstos en esta ley y a aquellos derivados de otras normas, cuando afecten a un mismo interesado, la disposición adicional quinta hace mención a que el Gobierno procurará que se desarrollen bajo los criterios de coordinación y simplicidad en su tramitación, proceso que evidentemente no puede dejarse exclusivamente en manos de una regulación sectorial como la presente, sino que corresponde a los instrumentos de reforma administrativa que se arbitren al efecto.

A continuación, la ley se centra en pormenorizar y sistematizar las empresas de alojamiento turístico siguiendo la clasificación convencional de alojamiento hotelero y extrahotelero.

En lo concerniente al alojamiento extrahotelero, se establecen las pautas generales de las distintas modalidades existentes, aun cuando algunas de ellas, como los apartamentos turísticos, tengan escaso relieve en la Comunidad Autónoma.

Se incluye en el capítulo II la regulación de las viviendas turísticas vacacionales y los alojamientos en casas particulares.

Ciertamente, su ubicación sistemática puede ser discutible, en tanto que no se trata propiamente de empresas turísticas; sin embargo, su naturaleza innegable de alojamiento turístico hace conveniente incluirlas junto a las otras modalidades y con remisión a una normativa reglamentaria específica que las regulará.

En el caso de la regulación del alojamiento en casas particulares conviene realizar algunas puntualizaciones. En primer lugar, hay que señalar que las previsiones del artículo 28 excluyen la tenencia de huéspedes con carácter estable a que se refiere la ley de Arrendamientos Urbanos. En segundo lugar, hay que señalar que en la práctica existe una actividad de alojamiento en viviendas particulares que, en ocasiones, constituye una red de apoyo de los establecimientos hoteleros. Por ello, y desde la perspectiva del usuario turístico, es preciso establecer normas protectoras de los derechos que con carácter general le son reconocidos.

Es cierto también que la proliferación de viviendas particulares que ofrecieran alojamiento podría resultar contraria a los fines de la ley, en la medida en que pudiera propiciar una competencia improcedente para la oferta de alojamiento regular y de calidad, particularmente la hotelera. La ley establece que el alojamiento en habitaciones de viviendas particulares mediante precio, ofrecido por motivos vacacionales o turísticos en aquellos municipios o situaciones en los que sea notoriamente insuficiente la dotación de alojamiento turístico hotelero, estará sometido a la obligación de notificación a la Administración turística, garantizando siempre la calidad mínima y la protección del usuario, equilibrando con ello

familien irabaziak handitzeko bidea sustatzen da.

V.- Ondoren, III. idazpuruak enpresa ez diren turismo egile-eragileak biltzen ditu, eta enpresa ez diren turismo-erakundeekin eta turismo-lanbideekin batera, turismo-erabiltzaileak ere aipatzen ditu. Erabiltzaileentzat atalburu berezia gorde da, nahiz eta atal guztiek bezeroaren babeserako irizpide eta neurriak dituzten oinarri.

VI.- Legearen IV. idazpuruak turismo-baliabideen lege-jaurbidea ezartzen du. Bertan proposatzen diren baliabideen antolaketari dagokionez, honako hauek azpimarratu behar dira:

a) Lurraldeko Arlo Planak erabakitzen du turismo-baliabideen antolaketa.

b) Maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak lurralde-antolaketarako zehazturiko tresnen barruan sartzen da plan hau.

c) Euskal Autonomi Elkarte osoa da planaren esparrua.

Eskualdeko Estrategiazko Planek, lurralde-esparru txikietan antolaketa-bideak zehazten dituzten heinean, garrantzi berezia dute.

Baliabideak eta turismo-eskaintza antolatzeko beharrezkoa da turismo-politika plangintza bateratuko ekintzatzat hartzea, eta ez noizbehinkako, loturarik gabeko eta unean uneko iharduketa-multzo gisa.

VII.- Azkenik, VI. idazpuruak turismo-disziplinari dagokion guztia hartzen du. Horrela, Konstituzioak agindu bezala, turismo-arloan Autonomi Elkarteak duen zigor-ahalmena babesten duen araua, lege-maila dagokiona, izateko beharra betetzen da. Zigor-erabakiei dagokienez, legearen testua Herri Administrazioen Lege Jaurbidearen eta Guztientzako Administrazio Ihardunbideari buruzko azaroaren 26ko 30/92 Legearen erabakietara egokitu da.

VIII.- Adierazi beharrekoa da, baita, legean jasotzen diren arauek araudi bidez osatu beharra dutela erabaki gehigarrietan eta azken erabakietako bigarrenean aipatutako gaiei dagokienez, bai eta erabaki horiek garatu eta ezartzeko beharrezko diren guztiei dagokienez ere, eta horretarako, Eusko Jaurlaritzari behar den araudi-ekimenari bere garaian heltzeko ahalmena ematen zaio.

la insuficiente oferta turística de localidades y comarcas específicas y propiciando una vía de ampliación de las rentas familiares.

V.- El título III de la ley se refiere a los sujetos turísticos no empresariales, destacándose de entre ellos, junto a las entidades turísticas no empresariales y profesiones turísticas, a los usuarios turísticos, a quienes se destina un capítulo específico, si bien todo el articulado está inspirado en criterios y medidas dirigidas a la protección del cliente.

VI.- El título IV se destina a establecer el régimen jurídico de los recursos turísticos. En relación a la ordenación de los recursos que la ley propone cabe destacar:

a) Que la ordenación de los recursos turísticos se realiza por medio del Plan Territorial Sectorial.

b) Que este plan se integra en los instrumentos de ordenación territorial definidos por la Ley 4/1990, de 31 de mayo.

c) Que el ámbito del plan es el conjunto de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Singular importancia tienen los Planes Estratégicos Comarcales, en cuanto concretan en un ámbito territorial reducido los mecanismos de ordenación.

La ordenación de los recursos y de la oferta turística implica considerar a la política turística como una acción planificada unitaria, no como un conjunto de actuaciones esporádicas, inconexas y coyunturales.

VII.- Finalmente, en el título VI la ley aborda cuanto se refiere a la disciplina turística, dando cumplimiento a la exigencia constitucional de una norma con rango de ley que ampare la potestad sancionadora que la Administración de la Comunidad Autónoma ejerce en materia de turismo. En sus disposiciones sancionadoras, el texto de la ley se ha adaptado a las disposiciones de la Ley 30/92, de 26 de noviembre, sobre Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

VIII.- Resta por indicar que la regulación contenida en la ley precisa de complementación por vía reglamentaria respecto de las cuestiones referidas en las disposiciones adicionales, en la disposición final segunda y, en general, para cuantas sean necesarias en orden a su desarrollo y aplicación, quedando facultado el Gobierno Vasco para acometer, en su momento, la iniciativa reglamentaria precisa.

# I. IDAZPURUA ERABAKI OROKORRAK

**1. atala.- Helburua**

Euskal Autonomi Elkarteko turismo-sektorea arautzea eta administrazioaren ekintzak turismo-ihardunaren plangintza, sustapena eta zuzperketa egin ahal izateko zein hatsapen eta irizpideri egokitu beharko zaion ezartzea dira lege honen helburu.

**2. atala.- Ezarpen-eremua**

1.- Lege honen erabakiak Euskal Autonomi Elkarteko turismo-sektorea osatzen duten ihardun eta baliabide guztiei ezarriko zaizkie.

2.- Turismo egile-eragiletzat honako hauek hartuko dira:

a) Turismo-enpresak, enpresa ez diren turismo-erakundeak eta turismo-lanbideak, beti ere horien ekintzak, zuzenean edo zeharka, bidaiarien joan-etorria, egonaldia eta zerbitzuak errazteko helburua badu.

b) Aurreko puntukoek ematen dituzten zerbitzuak hitzartzen edo jasotzen dituzten turismo-erabiltzaileak edo bezeroak, norbanakoak nahiz lege-nortasundunak direla.

3.- Izaera edo inguruabarrak direla eta, turismoko joan-etorriak sortzeko gai diren gauza materiazko nahiz materiagabeak, berezkoak izan ala ez izan, turismo-ondasun edo -baliabidetzat hartzen dira. Horiek horrela, pertsonak tokiz aldatzea eta ohizko bizilekutik kanpo egotea joko da turismoko joan-etorritzat.

**3. atala.- Xedeak**

Lege honen lehen atalean adierazitako helburua honako xede hauek lortzean datza:

1.- Turismo-eskaintza antolatzea, azpiegiturako hutsak zuzenduz, kalitatea hobetuz eta turismoko zerbitzuak, ezarkinak eta tresneriak lurraldeko azpiegituraren garapenari eta ingurugiroaren babesari egokituz.

2.- Turismoko enpresa egile-eragileen ihardunik onenerako behar adinako eremua eskaintzea, horien kalitatea eta lehiakortasuna erraztuz.

3.- Turismo-eskaintza eta -plangintza gaur egungo eta bihar-etziko eskaeraren eskakizunetara egokitzea.

4.- Turismo-baliabideak babestu eta jagotea, hondamena eta endekapena saihestuz eta eskaintzako aukera guztietan behar bezalako probetxamendua bultzatuz, kultura, historia, arte, paisaia, hi-

# TÍTULO I DISPOSICIONES GENERALES

**Artículo 1.- Objeto**

La presente ley tiene como objeto la regulación del sector turístico de la Comunidad Autónoma del País Vasco y el establecimiento de los principios y criterios a los que habrá de acomodarse la acción administrativa en lo concerniente a la planificación, promoción y fomento de la actividad turística.

**Artículo 2.- Ámbito de aplicación**

1.- Las disposiciones de esta ley se aplicarán al conjunto de actividades y recursos que conforman el sector turístico de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.- Se consideran sujetos de la actividad turística:

a) Las empresas turísticas, las entidades turísticas no empresariales y las profesiones turísticas en cuanto su acción esté destinada directa o indirectamente a facilitar el movimiento, estancia y servicio de viajeros.

b) Los usuarios turísticos o clientes, como personas físicas o jurídicas que contraten o reciban los servicios que prestan los sujetos relacionados en el apartado anterior.

3.- Son bienes o recursos turísticos las cosas materiales o inmateriales, naturales o no, que por su naturaleza o circunstancias son capaces de generar corrientes turísticas. A estos efectos, se entenderá por corriente turística el desplazamiento y permanencia de personas fuera de su domicilio.

**Artículo 3.- Fines**

El objeto expresado en el artículo 1 de esta ley se concretará en la consecución de los siguientes fines:

1.- Ordenación de la oferta turística mediante la corrección de las deficiencias de infraestructura, la elevación de la calidad y la armonización de los servicios, instalaciones y equipos turísticos con el desarrollo de la infraestructura territorial y la conservación del medio ambiente.

2.- Ofrecimiento de un marco suficiente para el mejor desarrollo de la actividad de las empresas y sujetos turísticos favoreciendo la calidad y competitividad de las mismas.

3.- Acomodación y planificación de la oferta turística a las exigencias de la demanda actual y potencial.

4.- Preservación de los recursos turísticos, evitando su destrucción o degradación y procurando su correcto aprovechamiento en todas las modalidades de la oferta, con respeto a los valores cul-

rigintza eta ingurugiroko balioak aintzat hartzen direla.

5.- Bertako turismo-hornidura berritu eta hobetzeari eta zerbitzu-eskaintza osagarriak garatzeari bultzada ematea, sektoreetako enpresa-egiturak egokitzeko behar diren laguntza-bideak sustatuz.

6.- Barruko zein kanpoko turismoko joan-etorriak indartzea, gizarte-turismoa zuzpertuz eta gero eta gizarteko talde zabalagoetara eta sektore berezituetara hedatuz turismoaren ekimena.

7.- Turismo-erabiltzailea babestea.

8.- Turismo-lanbideek bere dituzten ihardunetan aritzeari, horietarako gaitzeari eta hobetzeari laguntzea.

**4. atala.- Administrazioaren iharduketarako hatsapenak eta irizpideak**

Administrazio-iharduketa ondoko hatsapen eta irizpide orokorretan biltzen diren aginduei lotuko zaie:

1.- Gainerako herri-administrazioekin koordinatu eta lankidetzan aritzea, herri-ekintza eraginkorragoa izan dadin.

2.- Zerbitzuaren eta ezarkinen kalitatea areagotu eta hobetzeko xedez, administrazio-kontrolaren eraginkortasuna hobetzeko neurriak bultzatzea, indarrean dagoen araubidea ezarriz.

3.- Turismo-enpresen lehiakortasun-estrategien hobekuntzari arreta berezia eskaintzea, zuzperketako herri-ekintzak honako hauek izango dituela xede:

a) Enpresen garapen eraginkorra erraztu eta sustatuko duen teknikaren eta zerbitzuen azpiegitura sortzeko pizgarria izatea.

b) Enpresa-elkarte eta -taldeei bultzada ematea.

c) Lehiakortasunaren, estrategiazko planen eta turismo-tokien diagnostikoei buruzko ikerketak egiten laguntzea.

d) Turismo-produktuak sustatzeko, sortzeko eta merkaturatzeko ekintza-egitarauak aurrera eramaten laguntzea.

4.- Turismo-ostatuko enpresei dagokienez, herri-administrazioak honako hauek xede harturik ihardungo du:

a) Ostatu-plaza zaharkituak berritzea.

turales, histórico-artísticos, paisajísticos, urbanísticos y medioambientales.

5.- Impulso de la modernización y mejora del equipamiento turístico del país y del desarrollo de las ofertas complementarias de servicios, propiciando los cauces de apoyo precisos para el reajuste de las estructuras empresariales de los distintos sectores.

6.- Potenciación de las corrientes turísticas, tanto interiores como exteriores, procurando medidas de fomento del turismo social y la incorporación al fenómeno turístico de capas cada vez más amplias de la población y de sectores específicos de la misma.

7.- Protección del usuario turístico.

8.- Apoyo al ejercicio, formación y perfeccionamiento de las actividades propias de las profesiones turísticas.

**Artículo 4.- Principios y criterios de actuación administrativa**

La actuación administrativa se acomodará a las prescripciones contenidas en los siguientes principios y criterios de carácter general:

1.- Coordinación y cooperación con el resto de las Administraciones públicas para el ejercicio más eficaz de la acción pública.

2.- Impulso de las medidas para mejorar la eficacia del control administrativo, mediante la aplicación de la normativa en vigor, con el objetivo de desarrollar y mejorar la calidad del servicio y de las instalaciones.

3.- Especial atención a la mejora de las estrategias competitivas de las empresas turísticas centrando la acción pública de fomento en los siguientes ámbitos:

a) Estímulo a la creación de infraestructura técnica y de servicios que facilite y promueva un desarrollo empresarial eficiente.

b) Impulso a las asociaciones y agrupaciones de empresas.

c) Apoyo a la realización de estudios relativos a diagnósticos de competitividad, planes estratégicos y destinos turísticos.

d) Apoyo al desarrollo de programas de actividades de promoción, creación y comercialización de productos turísticos.

4.- En relación a las empresas de alojamientos turísticos la Administración pública actuará preferentemente tendiendo a:

a) Modernización de las plazas obsoletas de alojamiento.

b) Kalitate-eskaintza zabaltzea.

c) Eskaintzaren hazkunde berezitua ziurtatzea.

5.- Turismo-sektoreko lanbide-prestakuntza areagotzeko behar diren neurriak hartzea, gizarteak eta ekonomiak osatzen duten beharkizun-esparru orokorrean eta enplegu-politikaren helburuei arreta berezia eskainiz.

**5. atala.- Aginpideak**

1.- Euskal Autonomi Elkarteko Administrazioari honako aginpide hauek dagozkio:

a) Turismo-enpresako tegien ihardunerako baimena ematea, hala behar izanez gero, dagokien taldea, klasea, mota eta maila finkatuz.

b) Turismo-tegiak eta horiek beren zerbitzuak zein baldintzatan ematen dituzten ikuskatzea.

c) Turismo-zerbitzuen publizitatearen eta prezioen arloan ezarritakoa beteko dela zaintzea.

d) Turismo-eskaintza zuzpertu eta sustatzeko neurri egokiak hartzea, beste administrazio eta erakundeek, bakoitzak dituen aginpideez baliatuz, aurrera eramandakoekin koordinaturik eta haiekiko lankidetzan.

e) Lege honek aipatzen dituen gaien inguruan egin litezkeen erreklamazioak izapidatzea.

f) Turismo Baliabideak Antolatzeko Lurraldeko Arlo Planak eta Eskualdeko Estrategiazko Planak onartzea.

g) Legeak aurrikusitakoaren aurka egiten diren arau-hausteak direla eta bidezkoak diren zigorrak jartzea.

h) Legearen helburuak eta xedeak ziurtatzeko behar diren neurri guztiak hartzea Euskadiko turismo-sektorearen antolaketaren arloan, sektoreko eragileekin eta gainontzeko herri-administrazioekin batera lan eginez.

2.- Turismo-arloko aginpidea duen organoari dagokio aurreko puntuan zehazten diren eskumenak betetzea eta egiteratzea, beti ere beste organoei, zeini bere aginpideen barruan, dagozkiekeen eskumenen kaltetan izan gabe.

b) Ampliación de la oferta de calidad.

c) Asegurar el crecimiento selectivo de la oferta.

5.- La adopción de las medidas precisas para la intensificación de la formación profesional en el sector turístico, en el marco de las exigencias socio-económicas generales y con especial atención a los objetivos de la política de empleo.

**Artículo 5.- Competencia**

1.- Corresponderá a la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco la competencia para:

a) Autorizar la actividad de los establecimientos de las empresas turísticas fijando en su caso el grupo, clase, modalidad y categoría que correspondan.

b) Inspeccionar los establecimientos turísticos y las condiciones en las que se presten los servicios.

c) Vigilar el cumplimiento de lo establecido en materia de publicidad de los servicios turísticos y de sus precios.

d) Adoptar las medidas adecuadas para el fomento y promoción de la oferta turística, coordinando y colaborando con las desarrolladas por otras Administraciones y organismos en el ejercicio de sus propias competencias.

e) Sustanciar las reclamaciones que puedan formularse en relación con las materias a las que se refiere esta ley.

f) Aprobar los Planes Territoriales Sectoriales y los Estratégicos Comarcales de Ordenación de los Recursos Turísticos.

g) Imponer las sanciones que procedan por infracciones que se cometan contra lo prevenido en la presente ley.

h) Adoptar, en materia de ordenación del sector turístico de Euskadi, cuantas medidas sean necesarias para asegurar los fines y objetivos de la ley en colaboración con los agentes del sector, así como con las demás Administraciones públicas.

2.- Las atribuciones que se determinan en el punto anterior se ejecutarán por el órgano competente en materia de turismo, sin perjuicio de las que pudieran corresponder a otros órganos en el ámbito de sus competencias.

## II. IDAZPURUA
## TURISMO ENPRESAK

### I. ATALBURUA
### AURRETIAZKO ERABAKIAK

**6. atala.- Turismo-enpresak eta -tegiak**

1.- Ostatu- eta jatetxe-zerbitzuak edo bidaiarien eta turismo-eskaintzaren arteko bitartekaritza-zerbitzuak ematen dituzten enpresak turismo-enpresak direla esaten da. Halaber, turismoarekin zuzeneko zerikusia izan eta araudiz horrelakotan sailkatu daitezen enpresak turismo-enpresatzat hartuko dira.

2.- Jendearentzakoak diren, kasu bakoitzean ezar daitekeen araubidearen arabera egokiturik dauden eta turismo-enpresek jendeari zerbitzu bat edo gehiago eskaintzeko dituzten lokalak edo ezarkinak, lege honen ondorioetarako, turismo-tegitzat hartuko dira.

**7. atala.- Turismo-enpresa klaseak**

Turismo-enpresa izan daitezke:

a) Turismo-ostatuak.

b) Bidaia-agentziak.

c) Jatetxeak.

d) Lege honetako 37. atalean aipatzen diren bestelako turismo-enpresak.

**8 atala.- Baimena**

1.- Turismo-enpresek, tegiak martxan jarri aurretik, turismo-administrazioari ihardunerako baimena eta sailkapena eskatu beharko dizkiote araudi bidez zehaztuko den moduan.

2.- Halaber, tegiak irekitzeko baimena eta horien sailkapena eman zirenean zeuden baldintzak funtsean ukitzen dituen edozein aldaketa egin ahal izateko, turismo-enpresek ihardunerako baimena eskatu beharko dute.

3.- Ihardunerako baimenak eta sailkapenak ez dute zerikusirik beste erakunde batzuek, zeinek bere aginpideen arabera, eman beharko dituztenekin.

4.- Sailkapena egin zenean kontuan hartu ziren baldintzak betetzen diren bitartean izango du indarra turismo-administrazioak emandako sailkapenak; hala ere, administrazioak, bere kabuz edo interesdunen batek eskatuta, dagokion espedientea ireki ondoren berrikusi ahal izango du.

## TÍTULO II
## EMPRESAS TURÍSTICAS

### CAPÍTULO I
### DISPOSICIONES PRELIMINARES

**Artículo 6.- Empresas y establecimientos turísticos**

1.- Son empresas turísticas las que tienen como objeto de su actividad la prestación de servicios de alojamiento, restauración o de simple mediación entre los viajeros y la oferta turística o cualesquiera otras directamente relacionadas con el turismo, y que reglamentariamente se clasifiquen como tales.

2.- Serán considerados establecimientos turísticos, a los efectos de esta ley, los locales o instalaciones abiertos al público y acondicionados de conformidad con la normativa en su caso aplicable, en los que las empresas turísticas prestan al público alguno o algunos de sus servicios.

**Artículo 7.- Clases de empresas turísticas**

Las empresas turísticas pueden ser:

a) De alojamiento turístico.

b) De agencias de viaje.

c) De restauración.

d) Otras empresas turísticas, a las que se hace referencia en el artículo 37 de esta ley.

**Artículo 8.- Autorización**

1.- Las empresas turísticas, con anterioridad a la entrada en funcionamiento de sus establecimientos, deberán solicitar de la Administración turística la correspondiente autorización de actividad y clasificación con arreglo al procedimiento que reglamentariamente se determine.

2.- Igualmente, las empresas turísticas deberán instar la correspondiente autorización de actividad para abordar cualquier modificación sustancial que afecte a las condiciones en las que se otorgó la autorización de apertura y clasificación de los establecimientos.

3.- La autorización de actividad y clasificación será independiente de la que corresponda otorgar a otros organismos en virtud de sus respectivas competencias.

4.- La clasificación otorgada por la Administración turística se mantendrá en tanto sean cumplidos los requisitos que se han tenido en cuenta al efectuar aquella, pudiendo revisarse de oficio o a petición de parte, previa instrucción del oportuno expediente.

**9. atala.- Turismo-enpresen betebeharrak**

Turismo-enpresek dagokien sektorerako araudi bidez ezarriko diren erabakiak bete beharko dituzte, eta oro har, hauek:

1.- Dagokien sailkapenaren arabera eman behar dituzten zerbitzuak ematea, lege honek eta legea garatuko duten araudiek aurrikusitako moduan.

2.- Tegietako ezarkinak behar bezala ihardungo dutela bermatzen duten baldintzetan zaintzea.

3.- Erabiltzaileei aurretiaz aditzera ematea zein-nolako zerbitzuak eskaintzen diren tegian, zerbitzuak nola ematen diren eta nolako prezioa duten.

4.- Tegiari dagokion sailkapenaren ezaugarri-ikurra ondo ikusteko moduko tokian jartzea.

5.- Erreklamazioak egiteko behar diren agiri guztiak bezeroari ematea, berak hala eskatzen badu.

6.- Enpresaren erantzukizunpeko balizko arriskuak bermatzen dituen herri-erantzukizuneko asegurua hitzartzea, zehaztuko den modu eta zenbatekoan.

7.- Zerbitzuen fakturak ezarritako prezioen arabera eta legez ohartematen denez egitea.

8.- Legez aitortutako eskumenak zuzen egiteratu ahal izateko, aginduta dauden argibide eta agiriak ematea administrazioari.

9.- Turismoko arauez gain, honako arlo hauetakoak ere betetzea: ingurugirokoak, etxegintza eta eraikuntzakoak, makinak ipini eta martxan jartzekoak, osasun eta segurtasunekoak eta suteei aurrea hartzeko neurrien arloan indarrean daudenak eta ezartzekoak diren beste guztiak.

**10. atala.- Turismo-enpresen errolda**

1.- Turismo-enpresek eta -tegiek Euskal Autonomi Elkarteko Turismo Enpresen Erroldan eman beharko dute izena. Turismo-arloko aginpidea duen organoari dagokio errolda hori, hain zuzen ere, administrazio-izaerakoa eta publikoa izango dena.

2.- Aukeran, bestelako ihardunen izena ere eman ahal izango da erroldan, haien zerbitzuak, ezarkinak edo turismorako onura direla eta, Euskadiko turismo-eskaintzan araudi bidez sartzeko nahikoa garrantzitsutzat jotzen badira.

3.- Administrazioak bere kabuz edo interesdunak hala eskaturik emango ditu erroldan turismo-enpresa eta -tegien izenak.

4.- Aipaturiko enpresa eta tegiei emango zaizkien

**Artículo 9.- Obligaciones de las empresas turísticas**

Las empresas turísticas están obligadas a cumplir las disposiciones que reglamentariamente se establezcan, de forma sectorial, y en general a:

1.- Prestar los servicios a los que están obligadas, según su clasificación, en los términos previstos en la presente ley y en los reglamentos que la desarrollen.

2.- Mantener las instalaciones de los establecimientos en condiciones que garanticen su correcto funcionamiento.

3.- Informar a los usuarios, previamente, sobre el régimen de los servicios que se ofertan en el establecimiento, las condiciones de prestación de los mismos y su precio.

4.- Exhibir, en lugar visible, el distintivo correspondiente a su clasificación.

5.- Facilitar al cliente, cuando lo solicitare, la documentación preceptiva para formular reclamaciones.

6.- Contratar una póliza de responsabilidad civil que garantice los posibles riesgos de su responsabilidad, en la forma y cuantía que se determine.

7.- Facturar los servicios de acuerdo con los precios establecidos y conforme a lo legalmente previsto.

8.- Facilitar a la Administración la información y documentación preceptiva para facilitar el correcto ejercicio de las atribuciones legalmente reconocidas.

9.- Cumplir, además de las normas de naturaleza turística, las vigentes en materia de medio ambiente, construcción y edificación, instalación y funcionamiento de maquinaria, sanidad y seguridad y prevención de incendios y cualesquiera otras de aplicación.

**Artículo 10.- Registro de empresas turísticas**

1.- Las empresas y establecimientos turísticos deberán inscribirse en el Registro de Empresas Turísticas del País Vasco. Este Registro dependerá del órgano que tenga atribuida la competencia en materia turística y tendrá naturaleza administrativa y carácter público.

2.- Potestativamente podrán inscribirse en el Registro otras actividades que por sus servicios, instalaciones o interés para el turismo se consideren reglamentariamente suficientemente relevantes para ser incluidos en la oferta turística de Euskadi.

3.- La inscripción de empresas y establecimientos turísticos se practicará de oficio o a instancia del interesado.

4.- La inscripción constituirá requisito del que de-

administrazio-baimenak lege arloan eraginkorrak izan daitezen, beharrezkoa izango da izena ematea.

5.- Erroldaren antolaketa eta ihardute-modua araudi bidez zehaztuko da.

## II. ATALBURUA TURISMO OSTATUKO ENPRESAK

**11. atala.- Zer diren**

Lanbide gisa eta ohizko ihardunaz, prezioaren truke eta zerbitzu osagarriekin edo gabe, pertsonei aterpea ematen dieten enpresak turismo-ostatuko enpresa dira.

**12. atala.- Klaseak**

1.- Aurreko atalak aipatzen dituen enpresak hotel-izaerako tegikoak edo hotel-izaeraz besteko turismo-ostatukoak izan daitezke.

2.- Turismorako garrantzitsuak diren sasoi, alde eta egoeretan aterpea eskaintzen duten kanpinak, turismo-apartamentuak, baserri-turismoko etxeak, oporretarako turismo-etxebizitzak eta norbanakoen etxeetako ostatu-logelak, prezioaren truke ostatua ematen dutenak, hotelez kanpoko turismo-ostatuak direla esaten da.

**13. atala.- Sarbidea**

1.- Turismo-ostatuek, bidaia-agentziek eta jatetxeek izaera publikoa izango dute eta, horregatik, arraza, sexua, iritzia edo norbanakoen edo gizartearen bestelako inguruabarra dela eta, ezin izango da inoren sarrera mugatu.

2.- Nolanahi ere, tegira sartu ahal izateko, erabilerako eta barne-jaurbideko araudiak bete beharra izan daiteke. Araudi horiek inola ere ezin izango dute lege honek dioenaren aurka egin eta tegira sartzeko tokietan ondo ikusteko moduan iragarri beharko dira.

## LEHEN SAILA HOTEL IZAERAKO TURISMO TEGIAK

**14. atala.- Sailkapena**

1.- Hotel-izaerako turismo-tegiak hotelen taldean edo apopilo-etxeenean sailkatuko dira.

2.- Hotelen taldea, bere aldetik, hoteletan eta apartamentu-hoteletan sailkatuko da.

**15. atala.- Hotelen taldea**

1.- Turismo-tegi batek, hotel izateko, honako baldintza hauek bete behar ditu: ostatua, jantokia-

pende la eficacia jurídica de las autorizaciones administrativas que se otorguen a las referidas empresas y establecimientos.

5.- La organización y funcionamiento del citado Registro se determinará reglamentariamente.

## CAPÍTULO II DE LAS EMPRESAS DE ALOJAMIENTO TURÍSTICO

**Artículo 11.- Concepto**

Son empresas de alojamiento turístico aquellas que se dedican, de manera profesional y habitual, mediante precio, a proporcionar albergue a las personas, con o sin prestación de servicios de carácter complementario.

**Artículo 12.- Clases**

1.- Las empresas a que se refiere el artículo anterior podrán serlo de establecimientos hoteleros o de alojamientos turísticos de carácter extrahotelero.

2.- Se entiende por alojamiento turístico extrahotelero los campings, apartamentos turísticos, agroturismo, viviendas turísticas vacacionales y alojamiento en habitaciones de casas particulares destinados a proporcionar albergue mediante precio en épocas, zonas o situaciones de singular significación turística.

**Artículo 13.- Acceso**

1.- Los establecimientos de alojamiento turístico, agencias de viajes y empresas de restauración tendrán la consideración de públicos, sin que el acceso a los mismos pueda ser restringido por razones de raza, sexo, religión, opinión o cualquier otra circunstancia personal o social.

2.- El acceso a un establecimiento podrá condicionarse al cumplimiento de reglamentos de uso o régimen interior. Estos reglamentos no podrán contravenir, en ningún caso, lo dispuesto en la presente ley y deberán anunciarse de forma bien visible en los lugares de acceso al establecimiento.

## SECCIÓN 1ª. DE LOS ESTABLECIMIENTOS TURÍSTICOS HOTELEROS

**Artículo 14.- Clasificación**

1.- Los establecimientos turísticos hoteleros se clasificarán en el grupo de hoteles o en el de pensiones.

2.- El grupo de hoteles se clasificará, a su vez, en hoteles y hoteles-apartamento.

**Artículo 15.- Grupo Hoteles**

1.- Son hoteles aquellos establecimientos que ofrecen alojamiento, con o sin comedor, y otros ser-

rekin edo gabe, eta beste zerbitzu osagarri batzuk eskaintzea, eraikin osoa edo eraikin-zati ongi bereizia hartzea, gela eta aretoek osotasun homogeneoa osatzea, tegirako erabilera bakarreko sarrerak, igogailuak eta eskailerak izatea, eta araudi bidez ezartzen diren baldintzak betetzea.

2.- Hotelaren egitura eta zerbitzuak bitarte direla, ostatu-unitate bakoitzaren barruan elikagaiak behar den bezala gorde, prestatu eta jateko ezarkin egokiak dituzten hotelak apartamentu-hotelak dira.

**16. atala.- Mailak**

1.- Hotelen taldean sartzen diren tegiak bost mailatan sailkatuko dira, dagozkien ezaugarriak izarrak izango direla. Bost izarrekoek, ez bestek, erabili ahal izango dute luxuko edo antzeko izena. Bost izarreko hotelek luxu handi terminoa erabili ahal izango dute, baldin eta erosotasun, apaingarritasun, zerbitzu osagarri edo antzeko zerbitzuen baldintza bereziak direla eta, administraziotik berariazko eta aurretiazko baimena jasotzen badute.

2.- Aurreko idazatiak aipatzen duen mailaren batean hotelak sailkatzeko, araudi bidez zehaztuko den moduan neurtuko da ezarkin eta zerbitzuen eskaintza. Nolanahi ere, honako hauek hartuko dira aintzat: bezeroak hartzeko ahalmena; tegia dagoen eraikinaren inguruabarrak eta eraikina dagoen tokia; logelen eta bezero guztiek erabil ditzaketen ezarkinen baldintzak eta hornidura; zerbitzu osagarriak; langile-kopurua bezeroak hartzeko duen egituraren eretzean; eta osasun- eta segurtasun-baldintzak.

3.- Osagarri gisa, administrazioak bultzatu egingo ditu hotelak kalitatearen arabera sailkatzeko sistema erabiltzetik atera daitezen produktuak eta, hala badagokio, horien aitorpena egingo du, horien sustapena egin ahal izateko.

**17. atala.- Apopilo-etxeen taldea**

1.- Ostatua, bestelako zerbitzu osagarriekin edo gabe, eskaintzen duten tegiak, duten neurriagatik nahiz zerbitzuen egitura, tipologia edo ezaugarriengatik hotel izateko gutxieneko baldintzetara iristen ez badira, apopilo-etxeak direla esaten da.

2.- Apopilo-etxeen taldea bi mailatan banatuko da, dagozkien ezaugarriak izar bat edo bi izango direla, araudi bidez ezarriko den eran.

**18. atala.- Berariazko gaitasuna**

1.- Hotel-izaerako tegiek berariazko gaitasunaren aitorpena jaso ahal izango dute turismo-administraziotik. Berariazko gaitasuna emateko orduan kontuan hartuko dira tegiaren ezaugarriak eta es-

vicios complementarios, ocupan la totalidad de un edificio o parte independizada del mismo, constituyendo sus dependencias un todo homogéneo con entradas, ascensores y escaleras de uso exclusivo y que reúnan los requisitos que reglamentariamente se establezcan.

2.- Son hoteles-apartamento los hoteles que por su estructura y servicios dispongan de las instalaciones adecuadas para la conservación, elaboración y consumo de alimentos dentro de cada unidad de alojamiento.

**Artículo 16.- Categorías**

1.- Los establecimientos comprendidos en el grupo de hoteles se clasificarán en cinco categorías identificadas por estrellas. El calificativo lujo o sus derivados solamente podrá ser utilizado por los de cinco estrellas. Los hoteles de cinco estrellas podrán utilizar el término de gran lujo cuando en atención a especiales condiciones de confort, decoración, servicios complementarios y otros de análoga naturaleza, reciban la expresa y previa autorización administrativa.

2.- A los efectos de la clasificación de los hoteles en la categoría a que se refiere el apartado anterior se valorará objetivamente la oferta de instalaciones y servicios en la forma que reglamentariamente se determine. En todo caso, se considerará: la capacidad receptiva; las circunstancias que concurran en el edificio en que esté instalado el establecimiento y situación del mismo; las condiciones y equipamiento de las habitaciones y de las instalaciones de uso común para los clientes; los servicios complementarios, el número de personal en función de su estructura receptiva; y las condiciones sanitarias y de seguridad.

3.- Con carácter complementario, la Administración impulsará y, en su caso, reconocerá, en orden a su promoción, los productos resultantes de la aplicación de un sistema de clasificación cualitativa de hoteles.

**Artículo 17.- Grupo Pensiones**

1.- Las pensiones son establecimientos que ofrecen alojamiento, con o sin otros servicios de carácter complementario y que, tanto por la dimensión del establecimiento como por la estructura, tipología o características de los servicios no llegan a los niveles exigidos para los hoteles.

2.- El grupo de pensiones estará clasificado en dos categorías identificadas por dos y una estrella en la forma que reglamentariamente se determine.

**Artículo 18.- Especialización**

1.- Los establecimientos hoteleros podrán obtener de la Administración turística el reconocimiento de su especialización. La especialización se otorgará en función de las características y servicios

kainitako zerbitzuak, bai eta eskaera zein-nolakoa den ere.

2.- Araudi bidez zehaztuko dira berariazkotasunen zerrenda (hondartza, mendia, motela, bainuetxea eta abar) eta bete behar diren baldintzak.

## 2. SAILA KANPINAK

### 19. atala.- Zer diren

1.- Behar den bezala zedarriturik egon, aldi batean erabili ahal izateko hornikuntza eta egokitasuna izan, oporretako edo aisialdiko bizimodua zerupean egin nahi duten hamar pertsonatik gora hartzeko gaitasuna izan eta egoitzatzat aterpe mugikorrak, kanpin-dendak, karabanak edo garraia daitezkeen antzeko osagaiak hartzen dituzten lur-sailei kanpin deritze.

2.- Hala eta guzti ere, administrazioak aurrez gertatutako zurezko nahiz antzerako osagai finkoak era iraunkorrez jartzeko baimena emango du, ezarkin horiek kanpineko toki-eskaintza osoaren ehuneko 25etik gorakoak izan ez daitezenean.

3.- Lege honek ezartzen duen esparrutik kanpo honako hauek geratzen dira: turismo-ekurategi pribatuak; irabazi-asmorik gabe talde bereziei aterpea eskaintzen dieten ekurategiak, adibidez, gazteentzakoak; aterpe-etxeak eta eskola-umeen oporretako udalekuak. Horiek guztiek, dagozkien lege eta erabakiei jarraiki ihardungo dute.

4.- Kanpinen izaera dela eta, ez da lurzatirik saldu edota sei hilabete baino gehiagoz alogeratzerik izango.

### 20. atala.- Arlo-planak

1.- Lege honen 48. atalak aipatzen duen Lurraldeko Arlo-Planak zehaztuko du zein den turismo-ekurategiak egiteko erabil daitekeen lur-azalera osoa, zenbat toki jarriko diren dauden mailen artetik, zeintzuk diren ekurategi-mota bakoitza erabiltzeko irizpideak eta zein-nolako neurriak hartu beharko diren turismo-baliabideak zaintzeko.

2.- Nolanahi ere, turismo-ekurategiak jartzen direnean, kasuan kasuko lurraldearen natura, hiri, paisaia, nekazaritza eta basogintzako baloreak zaindu beharra beti hartuko da kontuan.

3.- Kanpinetatik kanpoko ekuratze-ihardunak zenbait baldintzari egokitu beharko zaizkie, eta baldintza horiek araudi bidez arautuko dira.

### 21. atala.- Sailkapena

1.- Turismo-ekurategiak, ezarkin eta zerbitzuen arabera, lau mailatan banatuko dira: luxukoa, lehen mailakoa, bigarren mailakoa eta hirugarren mailakoa.

ofertados, así como de la tipología de la demanda del establecimiento.

2.- La lista de especialidades (playa, montaña, motel, balneario, etc.) y los requisitos exigibles será determinada reglamentariamente.

## SECCIÓN 2ª. DE LOS CAMPINGS

### Artículo 19.- Concepto

1.- Se entiende por camping el espacio de terreno debidamente delimitado, dotado y acondicionado para su ocupación temporal, con capacidad para más de diez personas que pretendan hacer vida al aire libre, con fines vacacionales o de ocio y utilizando como residencia albergues móviles, tiendas de campaña, caravanas u otros elementos similares transportables.

2.- No obstante, la Administración autorizará la instalación estable de elementos fijos prefabricados de madera o similares cuando dichas instalaciones no superen el 25% de la oferta total de las plazas de camping.

3.- Quedan excluidos del ámbito de aplicación de esta ley los campamentos de turismo de carácter privado así como aquellos que faciliten albergue, sin ánimo de lucro, a contingentes particulares, tales como los campamentos juveniles, los albergues y colonias de vacaciones escolares u otros similares, que seguirán regulándose por sus disposiciones propias.

4.- Dada la naturaleza de los campings queda prohibida la venta de parcelas o su arrendamiento por tiempo superior a seis meses.

### Artículo 20.- Planes sectoriales

1.- El Plan Territorial Sectorial al que se refiere el artículo 48 de la presente ley determinará la superficie total del terreno que podrá dedicarse a campamentos de turismo, el número de plazas a instalar entre las diferentes categorías, los criterios para la utilización de cada campamento y las medidas a adoptar para la preservación de los recursos turísticos.

2.- En todo caso, en la instalación de campamentos de turismo se tendrá siempre en cuenta la necesaria preservación de los valores naturales o urbanos, artísticos, paisajísticos, agrícolas y forestales del territorio de que se trate.

3.- Serán objeto de regulación reglamentaria las condiciones a las que deberán ajustarse las actividades de acampada fuera de los campings.

### Artículo 21.- Clasificación

1.- Los campamentos de turismo se clasificarán, en atención a sus instalaciones y servicios, en cuatro categorías: lujo, primera, segunda y tercera.

2.- Kasu bakoitzeko maila zehazteko, kontuan hartuko dira araudi bidez ezarriko diren baldintza hauek: kokapenari, ostatu-ahalmenari buruzko inguruabarrak; sarbideak eta aparkalekuak; higieneko, osasungintzako eta mediku-laguntzako zerbitzuak; edateko uren ezarkinak, elektra-indarra eta komunikazioak; jolas eta kirol egiteko ezarkinak; eta segurtasun- eta zaintza-baldintzak.

## 3. SAILA
## TURISMO APARTAMENTUAK

**22. atala.- Zer diren**

1.- Lanbide gisa eta ohizkotasunez prezioaren truke turismo-ostatua eskaintzen duten etxeak, finko egongo diren aurrez gertatutako eraikinak edo antzerakoak, edo horietako multzoak, turismo-apartamentuen mailan sartzen dira.

2.- Altzariak, ezarkinak, zerbitzuak eta tresneria berehala erabiltzen hasteko moduan dituzten lokalen erabilera eta gozamena beste bati lagatzen zaionean, aurreko idazatiak zehazten duen ihardunean aritzen dela ulertuko da. Aipaturiko erabilera eta gozamena multzo edo osotasunean dauden zerbitzu edo ezarkinei dagokie.

3.- Edozein motatako publizitatea egiten bada edo urte berean birritan edo gehiagotan ostatua eskaintzen bada, guztira hilabete baino gehiagoz, ohizkotasuna dagoela ulertuko da.

**23. atala.- Ezarkinak**

Turismo-apartamentuek argi-indarraren eta edateko uren azpiegitura-ezarkinez eta zaborrak eta hondakin-urak tratatzeko eta kanporatzekoez horniturik egon beharko dute, beti ere kasu bakoitzean ezartzekoak diren araudi-eskakizunen kaltetan izan gabe. Halaber, kasu bakoitzeko irekitze-baimenak lortu eta iharduteari buruzko erabakiek, indarrean daudenek, zehaztuko dituzten baldintzak bete beharko dituzte apartamentuek.

**24. atala.- Turismo-apartamentuen sailkapena**

1.- Turismo-apartamentuak, sailkapenaren arabera, lau mailatakoak izango dira: luxukoak, lehen mailakoak, bigarren mailakoak eta hirugarren mailakoak; maila horietako bakoitzari, hurrenez hurren, lau, hiru, bi eta giltza bat dagozkio.

2.- Araudi bidez zehaztuko dira turismorako apartamentu-motak, baita sailkapen-irizpidetzat jotzen diren baldintzak ere.

2.- Para determinar las respectivas categorías habrán de tenerse en cuenta necesariamente en la forma que se establezca reglamentariamente, los requisitos siguientes: circunstancias relativas a emplazamiento, capacidad de alojamiento; accesos y estacionamiento; servicios higiénicos, sanitarios y de asistencia médica; instalaciones de agua potable, energía eléctrica y comunicaciones; instalaciones recreativas y deportivas, y condiciones de seguridad y vigilancia.

## SECCIÓN 3ª.
## DE LOS APARTAMENTOS TURÍSTICOS

**Artículo 22.- Definición**

1.- Se incluyen en la categoría de apartamentos turísticos las casas, construcciones prefabricadas o similares de carácter fijo, o conjunto de ellas, en las que profesional y habitualmente se ofrezca mediante precio alojamiento turístico.

2.- Se considera que se ejerce la actividad a que se refiere el apartado anterior cuando se ceda el uso y goce de los locales referidos en condiciones de mobiliario, instalaciones, servicios y equipo que permitan la inmediata utilización: dichos uso y goce comprenderán, en su caso, los de los servicios e instalaciones comprendidos en el bloque o conjunto en que se encuentre.

3.- Se presumirá la habitualidad cuando se haga publicidad por cualquier medio o cuando se facilite alojamiento en dos o más ocasiones dentro del mismo año por tiempo que en su conjunto exceda de un mes.

**Artículo 23.- Instalaciones**

Los apartamentos turísticos estarán dotados de instalaciones de infraestructura relativas a electricidad, agua potable y tratamiento y evacuación de basuras y aguas residuales, sin perjuicio de las exigencias reglamentarias que en cada caso sean de aplicación y de los requisitos que se determinen en las disposiciones vigentes sobre obtención de licencias de apertura y funcionamiento en cada caso.

**Artículo 24.- Clasificación de los apartamentos turísticos**

1.- Los apartamentos turísticos se clasificarán en las categorías de lujo, primera, segunda y tercera, cuyos distintivos serán, respectivamente, cuatro, tres, dos y una llave.

2.- Reglamentariamente, se determinarán las modalidades de apartamentos turísticos, así como los requisitos que habrán de servir de criterios para la clasificación.

## 4. SAILA
## BASERRI-TURISMOA

**25. atala.- Zer den**

Baserri-esparruan eta nekazaritza-ustiategietan araudi bidez zehaztuko diren baldintzetan ostatua eta, hala badagokio, mantenua prezioaren truke eskaintzen duten tegiak baserri-turismokoak dira, beti ere etxebizitza horietan nekazariek bizi behar dutelarik.

**26. atala.- Ezarkinak eta baldintzak**

Baserri-turismoko ostatuko etxebizitzek baserrialdean egon beharko dute, eta mendialdeko edo baserri-giroak berezko dituen tradiziozko arkitekturaz egindakoak izan. Halaber, bizigaitasun-baldintzak biltzen dituzten gutxieneko ezarkin eta zerbitzuz hornituri egon beharko dute.

## 5. SAILA
## OPORRETARAKO TURISMO ETXEBIZITZAK ETA NORBANAKOEN ETXEETAKO LOGELETAKO OSTATUA

**27. atala.- Oporretarako turismo-etxebizitzak**

1.- Etxeak, finko egongo diren aurrez gertatutako eraikinak edo antzerakoak oporretarako turismo-etxebizitza dira, oporrak edo turismoa direla eta ostatu gisa eskaintzen badira, lege honetako 22. eta 25. ataletan sarturik ez badaude eta beren altzarien, tresneriaren, ezarkinen eta zerbitzuen horniketa-maila kontuan hartu gabe.

2.- Oporretarako turismo-etxebizitzek ireki eta aritu ahal izateko, aginpidea duen erakundeari turismo hartu-emanetan ihardungo dutela jakinarazi besterik ez diote egin beharko. Jakinarazpen hori behar bezala izapidaturik izan gabe aipatutako ostatuak hitzartu eta ustiatzen badira, lege honen ondoriotarako legez kanpoko ihardueratzat joko dira eta zigorra hartuko dute.

**28. atala.- Norbanakoen etxeetako ostatuak**

Ostatu horiek sustatzeko, eskaintzaren koordinazioa ziurtatzeko eta erabiltzaileen eskubideak bermatzeko, hotel-eskaintza nabarmenki urria den herri edo egoeretan, eta oporrak edo turismoa direla bide, norbanakoen etxebizitzatako logelak prezioaren truke ostatu gisa eskaintzeko orduan, beharrezkoa izango da aurreko atalaren 2. idazatian aurrikusitako jakinarazpena aurkeztea, eta hori egiten ez bada, idazati horretako ondorio berberak sortuko dira.

## III. ATALBURUA
## BIDAIA-AGENTZIAK

**29. atala.- Zer diren eta betekizunak**

1.- Turismo-zerbitzuetako bitartekotza eta antolaketa, eta besterik ez, lanbidez eta merkataritza mailan egiten dituzten pertsona fisikoak nahiz juridikoak dira bidaia-agentziak.

## SECCIÓN 4ª.
## AGROTURISMO

**Artículo 25.- Concepto**

Son establecimientos de agroturismo aquellos que en el ámbito rural y en explotaciones agrarias ofrecen servicio de alojamiento y, en su caso, de manutención, en viviendas habitadas por agricultores mediante precio, en las condiciones que reglamentariamente se determinen.

**Artículo 26.- Instalaciones y requisitos**

La vivienda donde vaya a instalarse el alojamiento de agroturismo deberá estar ubicada en el mundo rural y responder a las arquitecturas tradicionales de montaña o propias del medio rural y estar dotada con las instalaciones y los servicios mínimos reuniendo las debidas condiciones de habitabilidad.

## SECCIÓN 5ª.
## DE LAS VIVIENDAS TURÍSTICAS VACACIONALES Y EL ALOJAMIENTO EN HABITACIONES DE CASAS PARTICULARES

**Artículo 27.- Viviendas turísticas vacacionales**

1.- Se considerarán viviendas turísticas vacacionales las casas y construcciones prefabricadas o similares de carácter fijo que, con independencia de sus condiciones de mobiliario, equipo, instalaciones y servicios se ofrezcan como alojamiento por motivos vacacionales o turísticos y no se encuentren comprendidos en los artículos 22 y 25 de esta ley.

2.- Las viviendas turísticas vacacionales sólo estarán obligadas para su apertura y funcionamiento a notificar al organismo competente su dedicación al tráfico turístico. La contratación o explotación de los alojamientos de referencia sin la posesión del duplicado de dicha notificación debidamente diligenciada tendrá la consideración de clandestina a los efectos de esta ley y dará lugar a sanción.

**Artículo 28.- Alojamiento en casas particulares**

A fin de garantizar su debida promoción, la coordinación de su oferta y los derechos de los usuarios, el alojamiento en habitaciones de viviendas particulares mediante precio ofrecido por motivos vacacionales o turísticos, en aquellos municipios o situaciones en los que la oferta hotelera sea notoriamente insuficiente, estará sometido a la obligación de notificación prevista en el apartado 2 del artículo anterior, derivándose de su incumplimiento las mismas consecuencias.

## CAPÍTULO III
## DE LAS AGENCIAS DE VIAJE

**Artículo 29.- Concepto y requisitos**

1.- Son agencias de viajes las personas físicas o jurídicas dedicadas, profesional y comercialmente, en exclusividad a la mediación y organización de servicios turísticos.

2.- Bidaia-agentziek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Titulu-baimenaren jabe izatea.

b) Merkataritza-baltzuek gutxienez kasu bakoitzerako araudiz zehaztuko den baltzukapitala ordaindurik izatea.

c) Merkataritza-baltzu erakoak ez direnek bakoitzean ezar daitezen berme guztiak betetzea, horiek merkataritzakoei eskatzen zaizkienak baino haundiagoak inoiz ere izango ez direla.

3.- Bidaia-agentziek beren baliabideak erabili ahal izango dituzte antolatzen dituzten turismo-zerbitzuak emateko.

**30. atala.- Klaseak**

Bidaia-agentziak honako hiru taldeetan sailkaturik daude:

- Handizkariak: Agentzia hauek turismoko zerbitzu eta eskaintza-mota guztiak egitasmotan jarri, prestatu eta antolatzen dituzte gero txikizkariei eskaintzeko, zuzen-zuzenean berek sortutako produktuak erabiltzaile edo bezeroei eskaintzerik ez dutela.

- Txikizkariak: Hauek handizkarien produktuak erabiltzaile edo bezeroei saltzen dizkiete, edo, bestela, turismoko zerbitzu- eta eskaintza-mota guztiak egitasmotan jarri, prestatu, antolatu eta/edo zuzenean saltzen dizkiete erabiltzaileei, berek sortutako produktuak beste agentziei eskaintzerik ez dutela.

- Handizkari-txikizkariak: Agentzia hauek aldi berean aurreko talde bien ihardunetan ari daitezke.

**31. atala.- Bermea**

Bidaia-agentziek bezeroekin itundutako zerbitzuak direla eta, berme nahikoa osatu eta eduki beharko dute bere gain hartu dituzten beharkizunak bete ahal izateko eta ekitaldian bertan egindako arau-hausteek ekarritako zigorren eraginkortasuna ziurtatzeko. Bermea administrazio-bideko edo auzibideko erabaki sendetsiz edo ebazte-laudoz egiteratu ahalko da.

**32. atala.- Ezagutarazpena**

Bidaia-agentziek egindako zabalkunde idatzian, postan, agirietan eta publizitatean, edozein euskarri eta baliabide dela ere, ezagutarazpen-kodea, erroldatutako izena, merkataritza-marka, halakorik badu, eta helbidea adierazi beharko dira.

2.- Las agencias de viajes deberán cumplir los siguientes requisitos:

a) Estar en posesión del correspondiente título-licencia.

b) Tener las sociedades mercantiles desembolsado como mínimo el capital social que en cada caso se determine reglamentariamente.

c) Cubrir, aquellas que no revistan la forma de sociedad mercantil, el conjunto de garantías que en cada momento se establezcan, no siendo en ningún caso mayores que las exigidas a las mercantiles.

3.- Las agencias de viajes podrán utilizar medios propios en la prestación de los servicios turísticos que organicen.

**Artículo 30.- Clases**

Las agencias de viaje se clasifican en tres grupos:

- Mayoristas: Son aquellas que proyectan, elaboran y organizan toda clase de servicios y paquetes turísticos para su ofrecimiento a las agencias minoristas, no pudiendo ofrecer sus productos directamente al usuario o consumidor.

- Minoristas: Son aquellas que, o bien comercializan el producto de las agencias mayoristas con la venta directa al usuario o consumidor, o bien proyectan, elaboran, organizan y/o venden todas las clases de servicios y paquetes turísticos directamente al usuario, no pudiendo ofrecer sus productos a otras Agencias.

- Mayoristas-minoristas: Son aquellas que pueden simultanear las actividades de los dos grupos anteriores.

**Artículo 31.- Fianza**

Las agencias de viajes quedarán obligadas a constituir y mantener en permanente vigencia una fianza o garantía suficiente para responder del cumplimiento de las obligaciones contraídas con ocasión de los servicios concertados con sus clientes, así como de la efectividad de las sanciones que pudieran serles impuestas por las infracciones cometidas en dicho ejercicio. La fianza podrá ejecutarse en virtud de resolución firme en vía administrativa o judicial o, en virtud de laudo arbitral.

**Artículo 32.- Identificación**

En toda propaganda impresa, correspondencia, documentación y publicidad realizada por una agencia de viajes, cualquiera que sea el medio empleado por ésta, se indicará el código de identificación, su nombre y, en su caso, el de la marca comercial registrada, así como su dirección.

**33. atala.- Sarkoikeria**

Behar den titulurik izan gabe bidaia-agentziei dagozkien merkataritza-ihardunak edozein bidez hedatzen badira edo horien publizitaterik egiten bada, lanbide-sarkoikeriatzat joko da eta hutsegite larriari dagokion administrazio-zigorra jarriko zaie.

## IV. ATALBURUA JATETXE ENPRESAK

**34. atala.- Zer diren eta sailkapena**

Jatetxe-enpresak jendearentzat irekita dauden tegi finko zein higikorretan janariak eta/edo edariak tokian bertan jan edo edateko ohizkotasunez eta lanbidez ematen dituzten erakundeak dira. Ihardunok edozeinentzat irekita dauden tokietan jolasketa, dantzaldi edo ikuskizunen osagarri egiten direnean ere erabaki hauek ezarri beharko dira.

**35. atala.- Klaseak**

1.- Jatetxe-tegiak, zein bere ezaugarrien arabera, ondoko hiru talde hauetan sartzen dira:

- Jatetxeak.
- Tabernak edo kafetxeak.
- Kafetegiak.
- Ikuskizun- eta dantza-areto, klub eta antzerakoak.

2.- Tegi hauen izaera eta sarbide-arauak lege honen 13. atalean turismo-ostatuko enpresentzat zehaztutako berak dira.

**36. atala.- Mailak**

1.- Jatetxeak lau mailatan banatuko dira: lehen mailakoa, bigarren mailakoa, hirugarren mailakoa eta laugarren mailakoa; maila horietako bakoitzari, hurrenez hurren, lau, hiru, bi eta sardeska bat dagozkio.

2.- Lau sardeskako jatetxeek luxu hitza erabili ahal izango dute, baldin eta eskaintzen dituzten erosotasun, apainduria, osagarrizko zerbitzu eta antzeko izaerako bestelakoak kontuan izanez, administrazioaren baimena berariaz eta aldez aurretik jasotzen badute.

3.- Osagarri gisa, administrazioak bultzatu egingo ditu jatetxeak kalitatearen arabera sailkatzeko sistema erabiltzetik atera daitezen produktuak eta, hala badagokio, horien aitorpena egingo du, horien sustapena egin ahal izateko.

4.- Kafetegiak bi mailatan banatuko dira: lehen mailakoa eta bigarren mailakoa; maila horietako bakoitzari, hurrenez hurren, bi eta kikara bat dagozkio.

**Artículo 33.- Intrusismo**

La realización o publicidad por cualquier medio de difusión de las actividades mercantiles propias de las agencias de viajes sin estar en posesión del correspondiente título será considerada intrusismo profesional y sancionada administrativamente como falta grave.

## CAPÍTULO IV DE LAS EMPRESAS DE RESTAURACIÓN

**Artículo 34.- Concepto y clasificación**

Las empresas de restauración son entidades que se dedican de forma habitual y profesional a suministrar en establecimientos, fijos o móviles, abiertos al público, comidas y/o bebidas para consumir en el mismo local. También serán de aplicación las presentes disposiciones, cuando las actividades anteriormente descritas se presten con carácter complementario en locales de pública concurrencia, con ocasión de actividades recreativas, bailes o espectáculos.

**Artículo 35.- Clases**

1.- Los establecimientos de restauración en atención a sus características se ordenan en cuatro grupos:

- Restaurantes.
- Bares o Cafés.
- Cafeterías.
- Salas de baile y fiestas, clubes y similares.

2.- La naturaleza de los establecimientos y régimen del acceso a los mismos es idéntico al previsto en el artículo 13 de esta ley en relación a las empresas de alojamientos turísticos.

**Artículo 36.- Categorías**

1.- Los restaurantes se clasificarán en las categorías de primera, segunda, tercera y cuarta, cuyos distintivos serán, respectivamente, cuatro, tres, dos y un tenedores.

2.- Los restaurantes de cuatro tenedores podrán usar el término de lujo cuando en atención a especiales condiciones de confort, decoración, servicios complementarios y otros de análoga naturaleza, reciban la expresa y previa autorización administrativa.

3.- Con carácter complementario, la Administración impulsará y, en su caso, reconocerá, en orden a su promoción, los productos resultantes de la aplicación de un sistema de clasificación cualitativa de restaurantes.

4.- Las cafeterías se clasificarán en las categorías de primera y segunda, cuyos distintivos serán, respectivamente, dos y una tazas.

## V. ATALBURUA
## BESTE TURISMO ENPRESA OSAGARRIAK

**37. atala.- Zer diren eta sailkapena**

Turismoarekin zuzeneko zerikusia izan eta talde-zerbitzuen bitartekotza, aholkularitza edo antzeko osagarrizko ihardunak aurrera eramaten dituen beste edozein, beti ere araudi bidez horrela sailkatuta badaude, osagarrizko turismo-enpresatzat hartuko dira.

## III. IDAZPURUA
## ENPRESA EZ DIREN TURISMO EGILE-ERAGILEAK

## I. ATALBURUA
## ENPRESA EZ DIREN TURISMO ERAKUNDEAK

**38. atala.- Zer diren**

1.- Turismoaren edo turismo-ihardun jakinen garapena nola edo hala bultzatu nahi duten, irabazi-asmorik ez duten eta pribatuak diren erakundeak, enpresa ez diren turismo-erakundeak dira.

2.- Erakundeen estatutuek, elkarteak sortzeko eskubidea arautzen duten erabakiek eta ezar daitezkeen gainerako arauek bideratuko dute erakunde hauen iharduna. Erakundeok askatasun osoz erabakiko dute zein lurralde-esparrutan aritu eta zein izen hartuko duten.

**39. atala.- Zuzpertze-neurriak**

Herri-agintariek, dagozkien aginpideen eremuan, turismoaren garapena bultzatuko duten erakundeak, enpresa ez direnak, sortzeari laguntza emango diote.

## II. ATALBURUA
## TURISMO LANBIDEAK

**40. atala.- Zer diren**

Orientazio, informazio, laguntza eta antzeko ihardunak ohizkotasunez eta ordaindurik egiteari buruzko lanbide izan eta araudiz horrelakotzat zehaztu daitezenak turismo-lanbideak dira.

**41. atala.- Lanbide-hezikcta**

Turismo-administrazioak turismo-lanbideak berezko dituen ihardunetan aritu, prestatu eta hobetzeko behar diren neurri guztiak hartuko ditu. Halaber, turismoko langileentzako lan-baldintza onenak sustatuko ditu, beti ere turismo-eskaintzaren garapena antolatzeko neurrien barruan.

## CAPÍTULO V
## DE LAS OTRAS EMPRESAS TURÍSTICAS COMPLEMENTARIAS

**Artículo 37.- Concepto y clasificación**

Se consideran empresas turísticas complementarias cualesquiera otras que desarrollen actividades complementarias de mediación de servicios colectivos, consultoría o similares, directamente relacionadas con el turismo y que reglamentariamente se clasifiquen como tales.

## TÍTULO III
## DE LOS SUJETOS TURÍSTICOS NO EMPRESARIALES

## CAPÍTULO I
## DE LAS ENTIDADES TURÍSTICAS NO EMPRESARIALES

**Artículo 38.- Concepto**

1.- Son entidades turísticas no empresariales aquellas que, sin ánimo de lucro, y de carácter privado, tienen por fin promover de alguna forma el desarrollo del turismo o de actividades turísticas determinadas.

2.- Estas entidades se regirán por sus propios Estatutos, por las disposiciones que regulan el derecho de asociación y demás normas de aplicación, y determinarán libremente tanto su ámbito territorial de actuación como su denominación.

**Artículo 39.- Medidas de fomento**

Los poderes públicos, en la esfera de sus respectivas competencias, apoyarán la creación de entidades y organizaciones no empresariales que estimulen el desarrollo del turismo.

## CAPÍTULO II
## DE LAS PROFESIONES TURÍSTICAS

**Artículo 40.- Concepto**

Son profesiones turísticas las relativas a la realización, de manera habitual y retribuida, de actividades de orientación, información, asistencia y otras similares, y que reglamentariamente se determinen como tales.

**Artículo 41.- Formación profesional**

La Administración turística adoptará cuantas medidas sean necesarias en orden al ejercicio, formación y perfeccionamiento de las actividades propias de las profesiones turísticas y fomentará las mejores condiciones de empleo para los trabajadores y profesionales del turismo, dentro de las medidas de ordenación del desarrollo de la oferta turística.

## III. ATALBURUA
## TURISMO ERABILTZAILEA

**42. atala.- Herri-agintarien betebeharrak**

1.- Legeetan jasotakoarekin bat etorriz, herri-agintariek lege honen 2.2 b) atalak aipatzen dituen turismo-erabiltzaileen aldezpena bermatuko dute.

2.- Herri-agintariek honako hauek bete beharko dituzte:

a) turismo-eskaintzaren eta eskaintza horretan sartzen diren zerbitzuen alderdiei buruzko argibide objetibo, zehatz-mehatz eta osoa erabiltzaileari ematea etengabe eta modu eguneratuan;

b) turismo-erabiltzaileen eskubideak eta interesak babesteko behar diren neurriak hartzea, erreklamazioen bideari behar besteko garrantzia eta eraginkortasuna ematen saiatuz.

**43. atala.- Eskubideak**

Turismo-erabiltzaileak honako eskubide hauek izango ditu:

a) Zerbitzuak emateko baldintza guztiei buruzko argibide objetibo, zehatz-mehatz eta osoa jasotzekoa.

b) Turismo-zerbitzuak jasotzekoa hitzarturiko baldintza berberetan.

c) Zerbitzuak zein-nola hitzartu diren egiaztatzen duten agiri guztiak eta, nolanahi ere, legez emandako fakturak eskuratzekoa.

d) Erreklamazioak araudiz ezarritakoaren arabera egitekoa.

e) Indarrean dauden legeetan aitortutako gainerako eskubideak kontsumitzaile eta erabiltzaileak aldeztekoan.

**44. atala.- Betebeharrak**

Tegien erabiltzaileek honako bete behar hauek izango dituzte:

a) Elkar-bizitza eta higienerako arauak betetzea.

b) Erabilera edo barne-jaurbideko araudiei men egitea, beti ere araudi horiek lege honetan eta berau garatzen duten erabakietan ezarritakoaren aurka ez badaude.

c) Fakturan agertzen diren prezioak ordaintzea.

**45. atala.- Ebazpen Batzordea**

Turismo-zerbitzuen erabiltzaile eta kontsumitzaileek, beren kexak edo erreklamazioak ebazteko, inda-

## CAPÍTULO III
## DEL USUARIO TURÍSTICO

**Artículo 42.- Deberes públicos**

1.- De conformidad con lo previsto en las leyes, los poderes públicos velarán por la defensa de los usuarios turísticos, a los que hace referencia el artículo 2.2 b) de la presente ley.

2.- Serán deberes de los poderes públicos:

a) Ofrecer al usuario, de manera permanente y actualizada, una información objetiva, exacta y completa sobre los distintos aspectos de la oferta turística y de los servicios que en la misma se comprendan.

b) Adoptar las medidas necesarias para proteger los derechos e intereses del usuario turístico, procurando la máxima eficacia en la atención y tramitación de sus reclamaciones.

**Artículo 43.- Derechos**

El usuario turístico tendrá los derechos siguientes:

a) Obtener información objetiva, exacta y completa sobre todas y cada una de las condiciones de prestación de los servicios.

b) Recibir los servicios turísticos en las condiciones contratadas.

c) Obtener cuantos documentos acrediten los términos de su contratación y, en cualquier caso, las correspondientes facturas legalmente emitidas.

d) Formular reclamaciones, de acuerdo con el procedimiento reglamentariamente establecido.

e) Los demás derechos reconocidos en el vigente ordenamiento jurídico en materia de protección de los consumidores y usuarios.

**Artículo 44.- Obligaciones**

Los usuarios de los establecimientos turísticos tendrán las siguientes obligaciones:

a) Observar las normas de convivencia e higiene.

b) Respetar los reglamentos de uso o régimen interior, siempre que no contravengan lo previsto en la presente ley y en sus disposiciones de desarrollo.

c) Pagar los precios que les sean facturados.

**Artículo 45.- Junta Arbitral**

Los usuarios y consumidores de los servicios turísticos podrán plantear solicitudes de arbitraje para re-

rrean dagoen kontsumoko ebazpen-sistemaren arabera, ebazpengintzarako eskariak egin ahal izango dituzte.

## IV. IDAZPURUA
## TURISMO BALIABIDEAK

### I. ATALBURUA
### TURISMOKO OINARRIZKO BALIABIDEAK

**46. atala.- Zer diren**

Lege honen 2.3 atalean izaera orokorrez zehazturikoak dira turismo-baliabide, -ondasun edo -erakargarriak. Jende-oldeen turismoko joan-etorriak sortzeko arrazoi nagusia diren edo izan daitezkeenak dira, bakarka nahiz beste batzuekin batera hartuta, turismoko oinarrizko baliabideak.

**47. atala.- Aldarrikapena eta inbentarioa**

Turismoko oinarrizko baliabideak aitortu eta zerrendatu egin beharko dira, kasu bakoitzean horien sustapen eta babeserako ezarri beharreko araudiaren arabera.

### II. ATALBURUA
### TURISMO BALIABIDEEN ANTOLAKETA

**48. atala.- Lurraldeko Arlo Plana**

1.- Euskadiko turismo-baliabideen antolaketa Lurraldeko Arlo Planaren bidez egingo da.

Plan horrek Euskal Autonomi Elkarteko turismoaren garapen-eredua zehazteaz batera, turismoko edo oporretako bigarren egoitzaren ingurumaria antolatuko du. Zehazpide hori gauzatu, Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legeak ezarritako lurralde-antolaketako tresnen araberako ereduari jarraiki gauzatuko du.

2.- Euskadiko Turismo Baliabideak Antolatzeko Lurraldeko Arlo Planaren lur-eremua Euskal Autonomi Elkartea da.

**49. atala.- Turismo-eskualdea**

1.- Turismo Baliabideak Antolatzeko Lurraldeko Arlo Planak herri-iharduketa eta -finantzaketaren ikuspuntutik lehentasuna duten lur-eremu edo turismo-eskualdeak ezarriko ditu.

2.- Lur-eremu edo eskualde bat turismorako ona dela eta halakotzat aldarrikatzen denean, bertan dauden turismo-baliabideen probetxamendu egokiaren plangintza zehatza egin beharko da. Eskualde bat turismorako ona dela esateko, bertan honako baldintza hauek bildu beharko dute:

a) Turismoko oinarrizko nahikoa baliabide izatea.

solver sus quejas o reclamaciones, con arreglo al vigente sistema arbitral de consumo.

## TÍTULO IV
## DE LOS RECURSOS TURÍSTICOS

### CAPÍTULO I
### DE LOS RECURSOS TURÍSTICOS BÁSICOS

**Artículo 46.- Concepto**

Son recursos, bienes o atractivos turísticos los definidos con carácter general en el artículo 2.3 de esta ley. Se consideran recursos turísticos básicos los que, aisladamente o formando conjunto con otros, constituyen o pueden constituir causa principal en la generación de corrientes de turismo de masas.

**Artículo 47.- Declaración e inventario**

Los recursos turísticos básicos serán objeto de declaración e inventario, conforme a la normativa que en cada caso le sea de aplicación en orden a su promoción y protección.

### CAPÍTULO II
### DE LA ORDENACIÓN DE LOS RECURSOS TURÍSTICOS

**Artículo 48.- Plan Territorial Sectorial**

1.- La ordenación de los recursos turísticos de Euskadi se realizará por medio de un Plan Territorial Sectorial.

Este plan definirá el modelo de desarrollo turístico de la Comunidad Autónoma y ordenará el fenómeno de la segunda residencia turística o vacacional, con arreglo al modelo definido por los instrumentos de ordenación territorial establecidos por la Ley 4/1990, de 31 de mayo, de Ordenación del Territorio del País Vasco.

2.- El ámbito territorial del Plan Territorial Sectorial de Ordenación de los Recursos Turísticos de Euskadi será el de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

**Artículo 49.- Comarca turística**

1.- El Plan Territorial Sectorial de Ordenación de los Recursos Turísticos establecerá áreas territoriales o comarcas turísticas consideradas como preferentes desde la perspectiva de la actuación y financiación pública.

2.- La consideración de un área o comarca como turística y su declaración como tal lo será a los efectos de la planificación detallada del aprovechamiento adecuado de los recursos turísticos en ella existentes. Para que una comarca pueda ser declarada turística requerirá que en la misma concurran las siguientes condiciones:

a) Que disponga de recursos turísticos básicos suficientes.

b) Nahikoa ostatu izatea edo horiek eraikitzeko gai den nahikoa lurzoru izatea.

c) Herri-onura aldetik lehentasuna duen beste erabilerarik ez izatea, turismoarekin elkartu ezinezkorik.

50. atala.- Aldarrikapena

1.- Eskualde bat turismorako ona delako aldarrikapena ondoko hauetan egin ahal izango da:

a) Turismo Baliabideak Antolatzeko Lurraldeko Arlo Planean.

b) Turismoko aginpidea duen sailak proposatu eta Jaurlaritza Kontseiluak onarturiko aldarrikapen berezian. Udalek Jaurlaritzari, gaitasunaren jabe den sailaren bitartez, aldarrikapen hori egiteko eskea egin ahal izango diote.

2.- Aldarrikapena udalerri batez edo haren zati batez, edo udalerri batzuez, edo udalerri batzuena den lur-eremuaz egin daiteke. Halaber, lurralde historiko bat edo gehiago hartu ahal izango du.

51. atala.- Eskualdeko Estrategiazko Planak

1.- Eskualde bat turismorako ona dela aldarrikatutakoan, bertako Turismo Baliabideak Antolatzeko Estrategiazko Plana prestatzeari ekingo zaio.

Estrategiazko plan hauek ez dute lurzoruaren jaurbideari eta hiri-antolakętari buruzko legeriaren arabera sortutako plan berezien izaerarik hartuko.

2.- Turismorako ona delako aldarrikapena duen eskualde bateko Turismo Baliabideak Antolatzeko Eskualdeko Estrategiazko Planek, gutxienez, honako zehaztapen hauek izan beharko dituzte:

a) Turismo-baliabideen inbentarioa eta balioespena eta baliabideak probetxatu eta babesteko hartu beharreko neurri eta modu onenen finkapena.

b) Turismo-baliabideen kokapena, izaera, balioa eta gaitasuna, lurzoruaren egoera eta ingurugiroaren zaintza aintzat harturik, turismo-tokietarako eremu egokiak.

c) Turismoarekin ezin elkartuzkoak diren erabilera, lan eta ihardunetatik babesteko aldeak eta bestelako berme-neurriak.

d) Turismoko eskaintza oinarrizkoaren eta osagarriaren tipologia eta lurraldeko eskaera eta gaitasunari begira eskaintza hori kalitatez eta kopuruz nolakoa den haztatuko duen azterketa.

b) Que disponga de alojamientos bastantes o de suelo apto para la edificación de los mismos en la extensión adecuada.

c) Que no exista otro uso incompatible con el turismo cuyo interés público sea preferente.

Artículo 50.- Declaración

1.- La declaración de una comarca como turística podrá efectuarse:

a) En el Plan Territorial Sectorial de Ordenación de los Recursos Turísticos.

b) En declaración especial aprobada por el Consejo de Gobierno a propuesta del Departamento que tenga atribuida la competencia de turismo. Los municipios podrán solicitar del Gobierno la citada declaración, a través del Departamento competente.

2.- La declaración podrá recaer sobre el ámbito territorial de un municipio o parte de él, o de varios municipios, o de un territorio perteneciente a varios municipios. Igualmente podrá afectar a uno o más Territorios Históricos.

Artículo 51.- Planes Estratégicos Comarcales

1.- Una vez declarada una comarca como turística se procederá a la elaboración del Plan Estratégico de Ordenación de los Recursos Turísticos de la misma.

Estos Planes Estratégicos no tendrán la naturaleza de los Planes Especiales dictados según la legislación sobre el Régimen del Suelo y Ordenación Urbana.

2.- Los Planes Estratégicos Comarcales de Ordenación de los Recursos Turísticos de una comarca declarada turística contendrán, al menos, las siguientes determinaciones:

a) Inventario y valoración de los recursos turísticos y fijación de los modos óptimos de aprovechamiento de los mismos y medidas a adoptar para su protección.

b) Áreas adecuadas para los asentamientos turísticos en razón a la situación, naturaleza, valor y capacidad de los recursos turísticos, las condiciones del suelo y la preservación del medio ambiente.

c) Zonas de protección y demás cautelas a adoptar para preservar al turismo de usos, obras y actividades incompatibles con él.

d) Tipología de la oferta turística básica y complementaria y estimación cuantitativa y cualitativa de dicha oferta en función de las previsiones sobre la demanda y la aptitud del territorio.

e) Oinarrizko azpiegitura-lan beharrezkoak.

f) Planaren egiteratzea unean uneko eskaerako benetako eskakizunetara moldatzeko aurrikuspenak.

g) Udaletako hiri-plangintzak estrategiazko planen zehaztapenetara egokitzea eta behar diren hirigintza-plan bereziak idaztea.

h) 52. atalean aipatzen den derrigorrezko irizpenaren oniritzipeko iharduketa eta egitasmoen zerrenda.

i) Plana berrikusteko nahikoa arrazoi.

3.- Turismoko aginpidea duen sailak bultzatuko ditu edo doakien udalerriek eskatuta bultzatuko dira Turismo Baliabideak Antolatzeko Eskualdeko Estrategiazko Planak. Hartaz gainera kasuan kasuko foru-aldundia, mankomunitatea, hala badagokio, eta eskualde barruko udalak kide dituen idazketa-batzordeak prestatuko ditu planok.

**52. atala.- Irizpen-ahalmenak**

1.- Turismo Baliabideak Antolatzeko Eskualdeko Estrategiazko Planak zehaztuko dituen iharduketa eta egitasmoak egiteratu aurretik derrigorrezko irizpena emango du turismoko aginpidea duen sailak.

2.- Planik ez badago, egiteratzekoak diren lekuan turismo-eskaintzari kalte egin diezaioketen iharduketak eta egitasmoak aurrikusten badira, irizpena derrigorrezkoa izango da.

## V. IDAZPURUA
## TURISMOAREN SUSTAPEN PUBLIKOA

**53. atala.- Aginpideak**

1.- Barruko nahiz kanpoko turismoaren sustapena Eusko Jaurlaritzari dagokio, Estatuarekin itundutako ekintzaren kaltetan izan gabe.

2.- Udalei dagokie, indarrean dauden legeen arabera, bere turismo-eskaintza sustatzea.

**54. atala.- Aginpide-atalak**

Autonomi Elkarteak, turismo-arloko aginpideak dituen sailaren bidez, honako esparru hauek izango ditu ihardungai:

a) Euskal Autonomi Elkarteko turismoa sustatzeko mota guztietako kanpainak diseinatzea eta egiteratzea.

b) Erakunde mailako turismo-argibideak ematea.

e) Obras de infraestructura básica necesarias.

f) Previsiones para acomodar la ejecución del plan a las exigencias reales de la demanda en cada momento.

g) Adaptación del planeamiento municipal a las determinaciones de los Planes Estratégicos y redacción de los Planes Especiales Urbanísticos precisos.

h) Relación de las actuaciones y proyectos sometidos al informe preceptivo a que se hace referencia en el artículo 52.

i) Causas suficientes para la revisión del plan.

3.- Los Planes Estratégicos Comarcales de Ordenación de los Recursos Turísticos se impulsarán por el Departamento que tenga asignada la competencia en materia de turismo, o a instancia de los municipios afectados, siendo elaborados por una Comisión redactora en la que además estarán presentes la Diputación Foral correspondiente, la Mancomunidad en su caso, y los respectivos municipios considerados dentro de la Comarca.

**Artículo 52.- Facultades de informe**

1.- El Departamento competente en materia de turismo emitirá informe preceptivo previo a la ejecución de aquellas actuaciones y proyectos que el Plan Estratégico Comarcal de Ordenación de Recursos Turísticos haya determinado.

2.- En ausencia de plan, el informe se emitirá con igual carácter cuando se prevean actuaciones y proyectos que puedan perjudicar la oferta turística de la zona donde vayan a ejecutarse.

## TÍTULO V
## DE LA PROMOCIÓN PÚBLICA DEL TURISMO

**Artículo 53.- Competencia**

1.- Corresponde al Gobierno Vasco la promoción del turismo tanto interior como exterior sin perjuicio de la acción concertada con el Estado.

2.- Corresponde a los municipios la promoción de su oferta turística con arreglo a la normativa vigente.

**Artículo 54.- Medidas**

La Comunidad Autónoma, por medio del Departamento que tenga asignadas las competencias en materia de turismo, podrá actuar, entre otros, en los siguientes ámbitos:

a) Diseño y ejecución de campañas de todo tipo para la promoción del turismo del País Vasco.

b) Información turística de carácter institucional.

c) Sektorearekin zerikusia duten Estatuko nahiz nazioarteko azoka eta lehiaketetan parte hartzea.

d) Lege honen xedeak lortzeko beharrezkotzat joko den beste edozein ihardun, Euskal Autonomi Elkarteko turismo-sustapenarekin zerikusirik badu.

## VI. IDAZPURUA
## TURISMO DISZIPLINA

### I. ATALBURUA
### ZER DEN ETA EZARPEN EREMUA

**55. atala.- Zer den**

Turismo-diziplinaren xedeą ikuskatze-lana arautzea, arau-hausteak eta zigorrak zernolakotzea eta turismo-arloko zigor-ihardunbidea ezartzea da.

**56. atala.- Hartzen dituen ihardunak**

Lege honen ezarpen-eremukoa izan eta Euskal Autonomi Elkarteko lurralde-eremuan egin dadin edozein turismo-iharduni erabaki hauek ezarriko zaizkio.

### II. ATALBURUA
### TURISMO IKUSKATZEA

**57. atala.- Eginkizunak**

Turismo-arloko aginpidea duen organoaren menpeko Turismo Ikuskatzailetzaren Zerbitzuak ondoko eginkizun hauek izango ditu:

a) Turismo-arloko legezko erabakiak beteko direla zaintzea eta egiaztatzea, eta bai beharrezko izan litezkeen irizpenak egitea ere.

b) Erabiltzaileen erreklamazio eta salaketetako gaiak nahiz jakinarazi diren ustezko arau-hausteak edo araugabekeriak gertatu ote diren egiaztatzea.

c) Azpiegiturako eta enpresen ihardute-moduko baldintzei buruzko aholkuak eta irizpenak ematea eta diruz lagundutako inbertsioen egiterapenaren jarraipena egitea.

**58. atala.- Ahalmenak**

1.- Ikuskatzaileak, dagokien eginkizunen esparruan, agintaritzako ordezkariak direnez, indarrean dagoen araubideak horrelakoei ematen dizkien babesa eta ahalmenak izango dituzte.

2.- Eginkizunak hobeto betetzeko beharrezkotzat joz gero, turismo-ikuskatzaileek beste herri-administrazio eta -erakundeen menpeko langileei eta zerbitzuei laguntza eskatu ahal izango diete.

c) Participación en ferias y certámenes relacionados con el sector, tanto en el ámbito estatal como internacional.

d) Cualquier otra actividad relacionada con la promoción turística del País Vasco que se considere necesaria para el logro de los fines perseguidos por la presente ley.

## TÍTULO VI
## DE LA DISCIPLINA TURÍSTICA

### CAPÍTULO I
### CONCEPTO Y ÁMBITO DE APLICACIÓN

**Artículo 55.- Concepto**

La disciplina turística tiene como objeto la regulación de la actuación inspectora, la tipificación de las infracciones y sanciones así como el establecimiento del procedimiento sancionador en materia de turismo.

**Artículo 56.- Actividades comprendidas**

Las presentes disposiciones serán de aplicación al ejercicio de cualquier actividad turística comprendida dentro del ámbito de aplicación de la presente ley que se realice en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

### CAPÍTULO II
### DE LA INSPECCIÓN TURÍSTICA

**Artículo 57.- Funciones**

El Servicio de Inspección Turística, dependiente del órgano competente en materia de turismo, realizará las siguientes funciones:

a) Vigilancia y comprobación del cumplimiento de las disposiciones legales en materia turística, así como la evacuación de informes a que hubiera lugar.

